



EHP-2020
Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako Plana
EIGA, ZUZEN+, ADITU eta AITZINATU programak
2022/23 ikasturtea
DEIALDIA

2022ko ekainaren 24ko deialdia, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordearena, zeinaren bidez UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileei dei egiten baitzaie, hizkuntza-prestakuntzarako EIGA, ZUZEN+, ADITU eta AITZINATU programetan parte hartzera.

1. DEIALDIAREN XEDEA:

Euskal Herriko Unibertsitatean euskararen egoera azterturik eta Euskararen III. Plan Gidariak dioenari jarraituz, Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetzak ekimenak sustatu behar ditu irakasleen eta ikertzaileen hizkuntza- ezagutza eta -erabilera indartzeko eta zabaltzeko, irakaskuntzaren eta ikerketaren bikaintasuna jomugan. Ildo horretatik, Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako EHP-2020 Planak estrategikotzat jotzen ditu, besteak beste, honako helburu hauek:

- a) Erabiltzaile aurreratuari dagokion gaitasun-maila (B2 maila) egiaztatua duten ikertzaile eta irakasleei laguntza eskaintzea, hiztun gaituari dagokion gaitasun-maila (C1 maila) erdietsi eta akreditatu ahal izan dezaten.
- b) Hiztun gaituari dagokion gaitasun-maila (C1 maila) egiaztatua duten ikertzaile eta irakasleei prestakuntza osagarria eskaintzea, unibertsitateko irakaskuntza- zein ikerketa-jarduerak dituen erronkei eraginkortasunez aurre egin ahal izan diezaieten. Helburu horri erantzuteko eskaintzen da, hain zuzen ere, ZUZEN+ programa (C1+ maila).
- c) Hiztun adituari dagokion gaitasun-maila (C2 maila) eskuratu eta egiaztatu nahi duten ikertzaile zein irakasleei baliabideak eta prestakuntza egokia eskaintzea, haiei dagokien jakintza-arloan, irakaskuntzari zein ikerketari dagozkion zereginetan bikaintasunez jardun ahal izan dezaten. Helburu horri erantzuteko eskaintzen da, hain zuzen ere, ADITU programa (C2 maila).
- d) Ikasgelako materialak, ikasleentzako eskuliburuak, argitalpen akademikoak, OCW ikastaroak, bideo didaktikoak edota ikerketa-lanak euskaraz garatu nahi dituzten irakasle, irakasle-talde zein ikertzaileei, hizkuntza-prestakuntza eta -aholkularitza ematea, alde batetik, kalitatezko materialak ekoizten laguntzeko, eta, aldi berean, haien hizkuntza- ezagutzak eguneratzen eta zorroztzen laguntzeko. Helburu horri erantzuteko eskaintzen da, hain zuzen ere, AITZINATU programa (C2+ maila).



Horiek horrela, honen bidez 2022/23 ikasturtean UPV/EHUren hiru campusetako irakasle zein ikertzaileei eskaintzen zaizkien EIGA, ZUZEN+, ADITU eta AITZINATU programetan parte hartzeko deialdia egiten da. Interesdunek Euskara Zerbitzuaren webgunean kontsulta ditzakete EHP-2020 Planaren xehetasunak. **Helbidea, hauxe:**

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/iri-hizkuntza-prestakuntza>

2. PRESTAKUNTZA-PROGRAMEN EZAUGARRIAK eta BALDINTZAK:

Programen xedeak, egitura, edukiak, ikaskuntza-eremak eta ebaluazio-irizpideak Euskara Zerbitzuaren webgunean zehazten dira EIGA, ZUZEN+, ADITU zein AITZINATU programei dagozkien xehetasunak jasotzen dituzten informazio-gidetan. **Helbidea, hauxe:**

<https://www.ehu.es/eu/web/euskara/iri-hizkuntza-prestakuntza/irakaskuntza-gidak>

2.1. Programen modalitateak, egutegiak eta ordutegiak

EIGA programa

Maila: Hiztun gaitua (C1)

Kreditu-kopurua: 12 ECTS

Modalitatea: Autoikaskuntza (tutore baten gidaritzapean)

Dedikazioa: 150 ordu

Banako lana online plataforman: 121 ordu

Mintzamen saioak (online): 22 ordu

Tutoretza indibidualak (online): 12 ordu

Egutegia (1. txanda):

Hasiera: 2022ko urriaren 10a

Amaiera: 2023ko martxoaren 31a

Egutegia (2. txanda):

Hasiera: 2023ko urtarrilaren 9a

Amaiera: 2023ko ekainaren 31a

Lekua eta plaza-kopurua: Online: 20 plaza

Oh: Ahozko saioen eta tutoretzen egutegia partaideekin batera adostuko da ikasturte hasieran. Horretarako, hitzordua jartzeko sistema telematiko eskainiko da.

Oh: Lehentasuna izango dute lehen txandako eskatzaileek (plazak agortu arte)



ZUZEN+ programa

Maila: Hiztun gaitua (C1+)

Iraupena: 12 ECTS

Modalitatea: presentziala / birtuala

Ordutegia:

Astelehenak: 12:30-14:30

Asteazkenak: 12:30-14:30

Egutegia:

Hasiera: 2022ko urriaren 10a

Amaiera: 2023ko ekainaren 19a

Lekua eta plaza-kopurua: 30 plaza guztira

Aurrez aurre: Donostia, Leioa eta Gasteiz (UPV/EHUren campusetan)

ONLINE: bideoplataformaren bidez (Webex edo antzeko bat).

Oh: Campusen batean aurrez aurreko taldea sortzeko adina lagun ez badaude, ONLINE taldean parte hartzeko aukera eskainiko zaie. Inork ikasturtean zehar

Oh: Ikasturtean zehar ONLINEko taldetik aurrez aurrekoetara aldatzeko aukera egongo da, beti ere, eskari arrazoitua bideratzen bada.

ADITU programa- aurrez aurre

Maila: Hiztun aditua (C2)

Iraupena: 15 ECTS

Modalitatea: jardun bikoia

- 40 ordu presentzial (taldekoak: aurrez aurre zein online, aukeran)
- 40 ordu, autoikaskuntza online (tutoretzapekoa)
- 2 tutoretza-ordu indibidual (online)

Saio presentzialak egiteko bi aukera egongo dira:

Aurrez aurre: Donostia, Leioa eta Gasteiz (UPV/EHUren campusetan)

ONLINE: bideoplataformaren bidez (Webex edo antzeko bat).

Saio presentzialen ordutegia: Saio presentzialak (aurrez aurreko modalitatean zein online modalitatekoak) bi astetik behin izango dira (bi orduz). Eskarien arabera, parte-hartzaileak taldetan banatuko dira. Hauek dira aurreikusitako aukerako ordutegiak.

A aukera (aurrez aurre): Asteartea: 12:30-14:30 (bi astetik behin, hilean 4 ordu)

B aukera (aurrez aurre): Osteguna, 12:30-14:30 (bi astetik behin, hilean 4 ordu)

C aukera (online): Osteguna, 12:30-14:30 (bi astetik behin, hilean 4 ordu)

Oh: A eta C aukerak hiru campusetan eskainiko dira. B aukera, berriz, gutxienez, 9 lagunek eskatzen badute campus jakin batean.

Egutegia:

Hasiera: 2022ko urriaren 11

Amaiera: 2023ko ekainaren 15a

Bi astetik behin saio bat (2 ordu). Hilean, 2 saio (4 ordu).

Plaza-kopurua: 35 plaza

Oh: Campusen batean aurrez aurreko taldea sortzeko adina lagun ez badaude, ONLINE taldean parte hartzeko aukera eskainiko zaie. Inork ikasturtean zehar

Oh: Ikasturtean zehar ONLINEko taldetik aurrez aurrekoetara aldatzeko aukera egongo da, beti ere, eskari arrazoitua bideratzen bada.



AITZINATU programa

Maila: Eragile aktiboa

Aukerak:

AITZINATU-1: Ikasleentzako ikasgelako materialak prestatzera zuzendutako programa

AITZINATU-2: Ikasmaterialak eta argitalpenak prestatzera zuzendutako programa

AITZINATU-3: Ikus-entzunezko edukiak lantzera zuzendutako programa

Iraupena: 6 ECTS

Modalitatea: telematikoa

- 5 mintegi taldean (online): 10 ordu
- 5 tutoretza indibidual (online): 5 ordu
- Proiektu gidatua: 45 ordu

Aurrez aurreko mintegien ordutegia: 12:30-14:30

Egutegia:

Hasiera: 2021eko urriaren 10ean

Amaiera: 2022ko ekainaren 15ean

Taldeko online mintegiak:

Urrian- 2 orduko mintegia

Azaroan- 2 orduko mintegia

Urtarrilean- 2 orduko mintegia

Martxoan- 2 orduko mintegia

Maiatzean- 2 orduko mintegia

- Saioak bideoplataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza taldekideekin adostuko da.
- Saioak grabatu egingo dira, inork zuzenean parte hartzerik ez badu, mintegian landutakoa beste une batean kontsultatu ahal izan dezan.

Banako online tutoretzak (banakoak):

Azaroan- 1 orduko banako tutoretza

Abenduan- 1 orduko banako tutoretza

Otsailean- 1 orduko banako tutoretza

Apirilean- 1 orduko banako tutoretza

Ekainean- 1 orduko banako tutoretza

- Saioak bideoplataforma bidez egingo dira.
- Egun eta ordu zehatza norbanakoarekin adostuko da.

Plaza-kopurua: 30 plaza



2.2. Taldeak osatzeko baldintzak

Taldeak osatzeko parte-hartzaileen gutxienerako kopurua bermatu behar da. Hauek dira kopuruak:

- **EIGA programa:** 4 lagun, gutxienez.
- **ZUZEN+ programa:** 10 lagun (taldeko).
- **ADITU programa:** 10 lagun (taldeko)
- **AITZINATU programa:** 4 lagun (taldeko)

Izen-ematea banaka zein talde-moduan egin ahal izango da. Lehenetsuna izango dute talde gisa izena ematen dutenek, Izen-ematea banaka zein talde-moduan egin ahal izango da. Lehenetsuna izango dute talde gisa izena ematen dutenek, beti ere, ikastegi, titulazio, sail edo ikerketa zein doktorego-programa bereko kideak baldin badira.

Programaren batean plazak beteko ez balira, eta beste programaren batean eskari handia balego, programa horretan talde gehiago sortzeko aukera aztertuko da.

- Campusen batean talderik ateratzen ez bada, bertakoei ONLINE modalitatean emango zaie lehenetsuna
- Campus batean eskari handia egon bada, campus horretan bigarren taldea sortzeko aukera aztertuko da.

3. ESKATZAILEAK: parte hartzeko baldintzak eta orientabideak

3.1. Deialdia argitaratzen denean lanean diharduten UPV/EHUko Irakasleek eta ikertzaileek izango dute programa hauetan parte hartzeko aukera, prestatze bidean dauden doktoregaiek barne. Alegia, 2022ko ekainaren 25ean Doktorego Eskolan izena emanda dauden doktoregaiek, eta ikerketa- zein irakaskuntza-kontratu bat indarrean duten irakasle eta ikertzaileek hartu ahal izango dute parte ikastaro hauetan; baita, ekainaren 25aren ondoren, eta uztailaren 20a bitartean Doktorego Eskolan hasi edota kontratu bat eskuratzen dutenek ere.

Bete gabeko plazarik geratuz gero, plaza horiek betetzeko aukera eskainiko zaizkie, matrikula epealdian baldintzak bete ez arren, urriaren 10a baino lehen UPV/EHU kontratua sinatzen duten edota Doktorego Eskolan onartuak dauden beste lagunei ere.

Ikasturtean zehar parte-hartzaileen egoera pertsonala aldatuz gero, aukera eskainiko da talde batetik beste batera aldatzeko eta, salbuespenez, programa batetik bestera aldatzeko ere. Behin onartutakoan zerrenda argitaratutakoan parte-hartzaileek UPV/EHUrekin duten harremana etengo balitz ere, parte-hartzaileak aukera izango dute ikastaroa guztiz osatzeko edota, behar izanez gero, beste talde batera aldatzeko.

3.2. EIGA programa pentsatuta dago C1 mailako akreditazioa eskuratzeko. Programa honetan parte hartzeko B2 maila egiaztatua izan behar da. Egiaztagirik ofizialik ez dutenei sarrera-proba egingo zaie, egiaztatzeko baldintza hori ondo betetzen dutela. Programa honetan parte hartzen dutenek aukera izango dute HABEk C1 maila egiaztatzeko deitzen duen deialdi itxian parte hartzeko, betiere, deialdiaren baldintzak betez gero.



3.3. ZUZEN+ programa pentsatuta dago irakasle-ikertzaileen hizkuntza-gaitasuna sendotu, eta ikerketa- zein irakaskuntza-jardueretarako beharrezko diren funtsezko ezagutzak eta gaitasunak landu nahi dituztenentzat: hizkuntza-ezagutzak eguneratu, ohiko akatsak eta zalantzak landu, dokumentu akademikoak idazten eta ahozko azalpenak egiten konfiantza irabazi. Programa honetan parte hartzea erabakitzen dutenek aukera izango dute HABEK C1 maila egiaztatzeko deitzen duen deialdi itxian parte hartzeko, betiere, deialdiaren baldintzak betez gero. Aukera hau egokia izan daiteke titulu ofizialik izan gabe, C1 mailako agiriak aurkeztetik salbuetsita dauden irakasle edo ikertzaileentzat edo EIGA agiria dutenentzat, aukera ematen baitie eskuratzeko balio osoa duen C1 mailako hizkuntza-egiaztatgiri ofiziala.

3.4. ADITU programa, berriz, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueretan aditu-mailan komunikatzea bermatzen duen C2 mailako hizkuntza-gaitasuna eskuratzera dago zuzenduta, eta, bereziki dago pentsatuta, hain zuzen ere, C2 mailako egiaztatgiri lortu nahi duten unibertsitateko irakasle eta ikertzaileentzat. Ikastaro hau egiten dutenek aukera izango dute HABEK C2 maila egiaztatzeko deitzen duen deialdi itxian parte hartzeko, deialdian ezarritako baldintzak betez gero. Ikastaro hau bereziki gomendagarria da haien titulazioetan ikasleek euskara-maila jaso lor dezaten bermatu behar duten irakasleentzat, edota, ikerketa-lanak euskaraz garatu eta argitaratu nahi dituztenentzat.

3.5. AITZINATU programa bereziki pentsatuta dago irakaskuntzarako materialak edo argitalpenak prestatu, eguneratu edo berrikusi nahi dituzten banako edota irakasle- edo ikertzaile-taldeentzat. Izan ere, parte-hartzaileek proiektu bat hartu beharko dute jomugan: adibidez, laborategiko praktiken gidoiak euskaraz egitea, irakasgai bateko diapositibak eguneratzea, metodologia berriak aplikatzeko materialak sortzea, irakasgai bideo-tutorialak sortzea, OCW ikastaro baterako materialak berrikustea, doktoretza-tesiaren laburpena euskaraz idaztea, euskarazko hitzaldiak egitea... Programa honetan, hain zuzen ere, material horiek izango dira hizkuntza-premiak identifikatu, eta hizkuntza-gaiak lantzeko abiapuntua. Ikastaro hau bereziki gomendagarria da modu kolaboratiboan proiektu bat (berrikuntza-proiektu bat, adibidez) garatzen ari diren irakasle edo ikertzaile-taldeentzat. Era horretara, hizkuntzaren lanketa modu sozial eta kooperatiboan egitea bermatzen baita, eta horren bidez, terminologia eta diskurtso akademikoaren ezaugarriak partekatzea errazten da. Doktoregaien kasuan, haien premietara egokitutako taldeak osatzea aurreikusi da.

4. PARTE-HARTZEA, ALTAK, BAJAK eta AKREDITAZIOA

4.1. Programei dagokien akreditazioa lortzeko, bi baldintza daude: asistentzia eta aprobetxamendua. Programa guztietan gutxieneko parte-hartzea eskatzen da eta aprobetxamendua egiaztatzeko zenbait ebidentzia aurkeztu beharko dira. Horiek guztiak zehaztuta daude programa bakoitzari dagokion informazio-gidan.

4.2. Asistentziaren datua kalkulatzeko orduan, kontuan hartuko dira bidezko lizentziak, bajak, atzerriko egonaldiak... Egoera horietan dauden parte-hartzaileek ez dute penalizaziorik izango asistentziaren datuan. Alabaina, egoera horiek aintzat har daitezten, horren berri adierazi beharko zaio idatziz Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari, eta, hala eskatuz gero, dokumentu justifikagarriak aurkeztu beharko dira. Alabaina, akreditazioa lortzeko, ezinbesteko izango da programa bakoitzean aurreikusitako gutxieneko ebidentziak eskaintzea.



4.3. Behin ikastaroa hasita, aukera egon daiteke programaz aldatzeko, edota programaren batean parte-hartzaile berriei alta emateko, baldin eta plaza libreak badaude, eta eskatzailearen profilararen arabera, egokitzat eta bideragarritzat jotzen bada aukera hori. Kasu hauetan, asistentziari dagokionez, alta eman ondorengo epea hartuko da kontuan soilik, ez ikasturte osoari dagokiona. Alabaina, akreditazioa lortzeko, ezinbesteko izango da programa bakoitzean aurreikusitako gutxienerako ebidentziak eskaintzea.

4.4. Inork ikasturtean zehar baja eman behar badu, jakinarazpen idatzia helarazi beharko dio Euskara Zerbitzuko Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzaren arloko arduradunari, bajari dagozkion izapide administratiboak garaiz eta modu egokian egin ahal izan daitezen. Parte-hartzaileak akreditazioa lortzeko aukera izango du, baldin eta baja eskatu bitarteko epealdiari dagozkion asistentzia-datuak egokiak badira, eta programan eskatzen diren gutxienerako ebidentziak jada eskaini badira.

4.5. Programa hauetan aurreikusten diren baldintzak betetzen dituzten parte-hartzaileek UPV/EHUren Euskara Zerbitzuaren ziurtagiria jasoko dute. Ziurtagiri hauek ondorioak izango dituzte UPV/EHUren deialdietan. C1 edo C2 mailaren balio osko egiaztagiri ofizialak eskuratzeko, berriz, HABEren deialdietara jo beharko dute parte-hartzaileek, betiere deialdiaren baldintzak betez gero. Horretarako, HABEk zehaztutako ebaluazio-probak egin beharko dira. Ebaluazio-proba horien arduradunak, programaren irakasleak izango dira.

5. IZEN-EMATEA

5.1. Eskaria egiteko, deialdi honi atxikitako inprimakia erabili behar da. Inprimakia helbide honetara helarazi beharko da: joseba.ezeiza@ehu.eus. Eskariak jaso ahala, jaso izana konfirmatuko da.

Izen-ematea banaka zein talde-moduan egin ahal izango da. Lehentasuna izango dute talde gisa izena ematen dutenek, beti ere, ikastegi, titulazio, sail edo ikerketa zein doktorego-programa bereko kideak baldin badira eta kopuru hauek bermatzen badira:

- EIGA programan: 3 lagun
- ZUZEN+ programan: 5 lagun
- ADITU programan: 5 lagun
- AITZINATU programan: 4 lagun

5.2. Izena emateko prozesua. Izena emateko bi epealdi aurreikusten dira:

- **Lehen epealdia:** 2022ko **ekainaren 25etik uztailaren 20ra** bitartean (biak barne). Lehen epealdian onartutako eta baztertutako eskatzaileen zerrenda **uztailaren 22an** argitaratuko da.
- **Bigarren epealdia:** 2022ko **uztailaren 20tik irailaren 12ra** bitartean (biak barne). Bigarren epealdian onartutakoen eta baztertutakoen zerrenda **irailaren 14an** argitaratuko da.

Lehen epealdian, lehentasuna izango dute 2021/22 ikasturtean ikastaroren bat egin dutenek (hurrengo mailako ikastaroa eskatuz gero). Epealdi honetan esleituko dira, halaber, Doktorego Eskolako kideentzat gordetako plazak ere (% 40).

Plazaren bat libre geratzekotan, irailaren 12tik aurrera jasotako eskariak ere kontuan hartu ahal izango dira.



5.3. Izen-ematea egin, eta plaza berretsia duten parte-hartzaileak ondorio guztietarako matrikulatutzat joko dira, non eta ez duten berriaz baja eskatzen, urriaren 5a baino lehen. HABEk homologatutako ikastaroetan aplikatu beharreko prozedurari jarraikiz, ZUZEN+ eta ADITU programetan izena emandakoen matrikula-datuak HABEren erregistroan jasoko dira horren ardura duen euskaltegiaren bidez, ondorio guztietarako HABEk eskaintzen dituen bermeen onuradun izan daitezten.

Leioan, 2022ko ekainaren 24n

M. Juncal Gutierrez Mangado

Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordea



ERANSKINA: IZENA EMATEKO ORRIA

<p>EHP-2020 Irakasleen eta Ikertzaileen Hizkuntza Prestakuntzarako Plana EIGA, ZUZEN+ ADITU eta AITZINATU programak 2022/23 ikasturteko deialdia</p>

Datu orokorrak:

Abizenak	
Izena	
NA zenbakia	
Helbide elektronikoa(k)	
Harremanetarako telefonoa	

Irakasle-Ikertzailea bazara, osatu eremua hau

Kategoria profesionala	
Saila	
Atxikitze-ikastegia	

Doktoregaia bazara, osatu eremua hau

Doktorego programa	
Atxikitze ikastegia	
Zenbatgarren urtea	

Hizkuntza-gaitasunari buruzko argibideak:

Unibertsitate-ikasketak euskaraz?	
Euskara-ziurtagiririk?	
EIGA/ZUZEN+/ADITU/AITZINATU/TSE ikastaroa egina?	
C2 ikastaroa egina (euskaltegian)?	
Tesia osorik euskaraz?	
Tesia partzialki euskaraz?	
Irakaskuntza-esperientzia euskaraz?	
Argitalpenik euskaraz?	

Hautatutako programa

	Donostia	Leioa	Gasteiz	ONLINE
EIGA (C1)				
ZUZEN+ (C1+)				
ADITU				

	AITZINATU-1	AITZINATU-2	AITZINATU-3
AITZINATU			

Oharrak: